

DSS MARKET PLAZA – GABONETAKO AZOKA SALMENTA GUNEAN PARTE HARTZEA ARAUTZEKO OINARRIAK

ATARIKOA

Donostiako Sustapena SA garapen ekonomikorako Donostiako Udalaren sozietatea da, eta haren helburuen artean ageri dira jarduera ekonomikoa sortzea eta kalitatezko enplegua eta hiriaren garapen ekonomikorako aukerak eta proiektuak sustatzea, guztia ere jasangarritasun eta berrikuntza irizpideak kontuan harturik.

Azken urteetan, Donostia nahitaezko bisita bihurtu da neguko hilabeteetan ere. Donostiako eraikinek eta paraje ederrek eskaintzen duten edertasunari gabon giroa gaineratzen badiogu –Urumea ibaiaren ertzeko Gabonetako Azoka, atrakzioak, argiak eta abar–, bertakoek zein bisitariek toki paregabean amestea lortzen dugu.

COVID-19ak inpaktu handia eragin badu ere, Gabonak funtsezkoak dira oraindik merkataritzan, ostalaritzan eta turismoan, eta Donostia erreferente da jarduera horietan. Alde horretatik, digitalizazioak garrantzi berezia du, kontuan hartuta 2020an eta 2021eko zati batean onlineko inguruneetara egokitu behar izan direla aurrez aurreko jarduera asko, pandemiak sorrarazi duen egoera dela eta. Horregatik, Donostia Sustapena lanean ari da Gabon garaiko kultura sustatzeko eta tokiko merkataritza bultzatzeko, baita onlineko kanalen bidez ere.

Donostia Sustapenak beste kanpaina batzuen bidez zein **DSS Market Plaza** plataforma digitalaren bitartez merkaturatze digitalean lortutako esperientziari esker, tokiko merkataritzaren eraldaketa digitala sustatu ahal izango du. Ildo horretan, GABONETAKO ONLINEKO AZOKA jarriko du abian, eta bertan parte hartzen duten saltoki guztiek aukera izango dute kontsumitzaileari zerbitzu pertsonalizatua eskaintzeko, eta, hala, bezeroaren ordutegietara egokituriko erosketa esperientzia pertsonalizatua ezartzeko. Merkatarien eta kontsumitzailearen arteko zuzeneko harreman horrek zalantzarik gabe hobetuko du zerbitzuaren kalitatea, baita produktuarena ere.

Horregatik guztiagatik, eta inauguratu zenetik lehen aldiz, Ekonomia Bultzatzeko Zinegotzigoak erabaki du iaz abian jarritako GABONETAKO ONLINEKO AZOKAekin jarraitzea, eta, horretarako, **DSS Market Plaza** plataforma digitala baliatuko da, Donostia Sustapenaren bidez. Hala, doako espazio birtual bat ipiniko da interesdunen eskura, zeinaren bidez ikusgarritasuna, sustapena, salmenta, posizionamendua eta eraldaketa digitalerako prestakuntza eskainiko baititu Donostiako Gabonetako Azokan parte hartu nahi duten saltokientzat.

Merkataritza elektronikoko plataforma horren bidez, Donostia Sustapenak indarra, babesa, aintzatespena eta merezitako protagonismoa eman nahi die Gabonetako kulturari, eraldaketa digitalari, Donostiako Gabonetako Azokari eta bertan parte hartzen duten merkataritza establezimenduei, ikusgarritasun handiagoa izateko eta eraldaketa digitaleko prozesuan laguntzeko, bai eta sektore horretan enpresa eta enplegu berriak sustatzeko ere.

1. XEDEA

Kanpainaren xedea da Donostiako Gabonetako Azoka indartzea, babestea eta aintzatezea. Ildo horretan, DSS Market Plaza plataforman, merkataritza elektronikoko salmenta gune baten bidez, ikusarazteko gune bat eskainiko die kanpaina horretan parte hartzen duten saltokiei, merkataritza establezimenduen lana eta ahalegina babesteko eta aintzatesteko, eta, era proaktiboan, merkataritza sektorearen salmentak sustatzen laguntzeko, guztia ere erakusleiko eta azoka birtualeko testuinguru batean.

Aurrekoa kontuan hartuta, Donostia Sustapenak **DSS Market Plaza** plataforma digitalean gune birtual bat jarriko du, eta, han, Donostiako Gabonetako Azokan parte hartu nahi duten saltokiek beren produktuak merkaturatu ahal izango dituzte **2021eko abenduaren 3tik 2022ko urtarrilaren 6ra arte**.

Donostiako Gabonetako Azokaren kanpaina amaitu ondoren, aurretik plataformari atxikita ez dauden eta **DSS Market Plaza** plataforma digitalean Gabonetako Azokarako berariaz izena eman duten merkataritza establezimenduek utzi egingo diote DSS Market Plazaren plataformako kide izateari. Esperientzia asegarria izan dutenek eta plataforman erregularitasunez parte hartu nahi dutenek **DSS Market Plaza** plataforma digitalaren Oinarri Orokorretan ezarritako prozesuaren bidez osatu beharko dute izena emateko prozesu orokorra.

2. PARTE HARTZEN DUTEN SALTOKIEN BETEKIZUNAK

Oinarri hauek arauturiko kanpainaren funtsa da Donostiako Gabonetako Azoka eta bertan parte hartzen duten ekoizleak eta merkataritza establezimenduak indartzea, babestea eta aintzatezea, Donostiako Gabonetako Azokan etxola fisiko bat izan edo ez. Era berean, saltokiak eta establezimenduak bi taldetan banatuko dira Donostiako Gabonetako Azokan parte hartzeko (A taldea, DSS Market Plaza plataforma osatzen duten saltoki eta establezimenduak, eta B taldea, DSS Market Plaza plataforma osatzen ez duten saltoki eta establezimenduak). Ildo horretan, A taldean edo B taldean dauden eta ondoren adierazten diren baldintzak betetzen dituzten ekoizleak eta saltokiek soilik parte hartu ahal izango dute Donostiako Gabonetako Azokaren kanpainan, **DSS Market Plaza** plataforma digitalean:

- A. **Oinarri hauek argitaratzen diren egunean DSS Market Plaza plataforma digitalean alta emanda dauden eta plataforman ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten Donostiako establezimenduak eta saltokiak.** Ez dute bete beharko baldintza gehigarriak.
- B. **Oinarri hauek argitaratzen diren egunean DSS Market Plaza plataforma digitalean alta emanda ez dauden baina plataforma horretako kide izateko interesa duten establezimendu eta saltokiak,** betiere ondoren adierazten diren baldintza guztiak betetzen badituzte:
 1. Produktuak Internet bidez saltzeko interesa duen establezimendu edo saltokia izatea.
 2. Donostiako saltoki edo establezimendu bat izatea, edo, salbuespen gisa, Donostiako Gabonetako Azokaren Kanpainaren iraupenera mugatuta egotea –berez Donostiako establezimendua ez izanagatik ere–, baldin eta Donostiako Gabonetako Azokan edo Lurkolektiboko artisauen karpan 2021eko azaroaren 26tik 2022ko urtarrilaren 6ra bitarte etxola fisiko bat duen saltoki edo establezimendu bat izatea.

3. Jarduera ekonomiko bat garatzen duen pertsona fisikoa edo juridikoa izatea, nahitaezko jarduera lizentzia izatea eta autonomo edo enpresa gisa dagokion araubidean alta emanda egotea eskabidea egiteko unean.

Era berean, eta modu osagarrian, pertsona juridikoen baldintza hauek bete beharko dituzte:

Enpresaren aktiboa ez izatea 10 milioi euro baino handiagoa, edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunean zehazten den moduan, ez izatea 10 milioi euro baino handiagoa.

Langile taldea ez izatea batez beste 50 pertsonatik gorakoa azken 12 hilabeteetan.

Ez izatea aurreko lehen eta bigarren zenbakietan aurreikusitako eskakizunen bat betetzen ez duen enpresen % 25etik gorako partaidetzarik, ez zuzenean, ez zeharka. Merkataritza Kodearen 42. artikulua zehaztutako moduan, entitatea sozietate talde bateko kide denean, adierazitako langile taldearen neurriak talde horretako erakunde guztiei egingo die erreferentzia.

Era berean, eta modu osagarrian, pertsona fisikoek baldintza hauek bete beharko dituzte:

Langile taldea ez izatea batez beste 50 pertsonatik gorakoa azken 12 hilabeteetan.

Enpresaren aktiboa edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunean zehazten den moduan, ez izatea 10 milioi euro baino handiagoa.

4. Erantzukizun zibileko aseguru poliza bat kontratatuta edukitzea prestigio handiko konpainia batekin eta poliza hori indarrean dagoela egiaztatzea, garatutako jardueratik eratorritako balizko erreklamazioak estaltzeko, produktuetatik eratorritako erantzukizuna barne.

Oinarri hauek argitaratzen diren egunean DSS Market Plaza plataforma digitalean alta emanda ez dauden baina plataformari modu iraunkorrean atxikitzeko interesa duten Donostiako establezimendu edo saltokiek plataformari atxikitzeko ohiko prozedura jarraitu ahal izango dute, "DSS MARKET PLAZA – GABONETAKO AZOKA SALMENTA GUNEAN PARTE HARTZEA ARAUTZEKO OINARRIAK" dokumentuan ezartzen den bezala. Honako helbide honetan dago eskuragarri agiri hori:

<https://ayudas.fomentosan Sebastian.eu/eu/zerbitzuak/enpresentzako-aholkularitza/dss-market-plaza-eu>

Susmorik edo zantzurik txikiena pizten denean, Donostia Sustapenak berea du eskubidea bere irizpide hutsez galarazteko gizalegearen aurkako jokabideak, indarkeriazko jokabideak, drogen kontsumoa eta/edo joko jarduerak edo eskubideak urratzea edo indarreko legeak ez betetzea zuzenean edo zeharka eragin dezakeen jokabide oro bultzatzen, sustatzen edo babesten duten saltokien eta/edo ekoizleen parte hartzea.

3.EZAUGARRIAK ETA FUNTZIONAMENDUA

DSS Market Plaza plataforman eginiko Donostiako Gabonetako Azokaren kanpainaren bidez, indarra, babesa, aintzatespena eta merezi duten protagonismoa eman nahi zaie Gabonetako kulturari, eraldaketa digitalari, Donostiako Gabonetako Azokari eta bertan parte hartzen duten merkataritza establezimenduei (aurrerantzean, DENDAK ETA ESTABLEZIMENDUAK), eta laguntza proaktiboa eskaini nahi da merkataritza sektorearen salmentak sustatzeko, erakusleho eta azoka birtualaren testuinguruan. Plataformak onlineko salmentarako gune bat izango du, eta www.dssmarketplaza.eu webgunean integratuta egongo da. Horren bidez, interesdunak herritarrengana hurbildu ahal izango

dira, beren produktuak eta/edo zerbitzuak (aurrerantzean, PRODUKTUAK) erakutsi eta saldu ahal izango dituzte, eta beren saltokiak plataforman duen errendimenduaren jarraipen zehatza egin ahal izango dute. Horri esker, salmenta eta/edo komunikazio estrategia berriak hartu ahal izango dituzte. Horretaz gainera, parte hartzaileek prestakuntza saio eskusiboak izango dituzte.

Plataformaren ezaugarriak eta funtzionamendua **DSS Market Plaza** plataforma digitalaren Oinarri Orokorren 3. atalean deskribaturikoak izango dira (*Ezaugarriak eta funtzionamendua*), **zeinak jarraian kopiaitzen baitira:**

Informazioaren kudeaketa plataforman

Saltokiek eremu pribatu bat izango dute, eta bertara sartu beharko dute produktuen saltokien informazioa kudeatzeko eta/edo salmenta produktuekin lotutako zereginak egiteko. Eremu pribatuaren bitartez erregistratutako datuak publikoak izan daitezke (saltokiko datuak, produktuen xehetasunak...), baita pribatuak ere (kontu zenbakia...).

Datu horiek behar adina aldiz aldatu ahal izango dira. Salbuespen gisa, plataformaren funtzionamenduan eragina izan dezaketen eta saltokiak alda ezin ditzakeen datuen kasuan, plataformaren administratzailearekin jarri beharko da harremanetan, eta mezu bat bidali helbide honetara: fomentoss@donostia.eus, gaian honako hau jarrita: [datuak aldatzea].

Saltoki bakoitzak plataforman duen informazioa eta eskaintzen dituen produktuak euskaraz eta gaztelaniaz deskribatuta egotea derrigorrezkoa da. Beraz, merkataria erantzukizuna da informazioa bi hizkuntzetan ematea. Plataformak itzultzaile neuronalak erabiltzen ikasteko tutorialak eskainiko dizkie merkatariei.

Informazioa ez bada bi hizkuntzetan igotzen eta/edo eguneratzen, Donostia Sustapenak neurriak har ditzake euskararen erabilera normalizatzeko oinarritzko legean jasotako hizkuntza eskubidea herritarrei bermatzeko, eta plataforman sartzeko aukera ukatzera irits daiteke.

Merkatariek plataforma kudeatzeko laguntza teknikoa izango dute, telefonoz, online edo aurrez aurre. Aurrez aurreko laguntza Donostia Sustapenaren lokalean (Gipuzkoa plaza, 7) emango da, aurretiko hitzordua hartuta.

Izen komertzial bat baino gehiagorekin parte hartu nahi duten enpresek izen komertzial adina sarbide izan ditzakete. Eskaera bakarra aurkeztuko da, izen komertzial bat baino gehiago izan arren.

Kategoriak

DSS Market Plaza plataformak kategoria handiak ditu saltokiak eta produktuak sailkatzeko, eta kategoria horiek azpikategoria batzuk izango dituzte aurrez definituta.

Saltokiak bi kategoria aukeratu beharko ditu gehienez, bai saltokia sailkatzeko, bai produktuak sailkatzeko, eta nahi beste azpikategoria aukeratu ahal izango ditu bi eremuetan.

Horri esker, saltokien bilaketa kategoria handien bitartez eta produktu zehatzen bilaketa kategoria desberberdinen bitartez bereiz daiteke, ez baitute zertan merkataritzari oro har esleitu zaizkion kategorien irizpide bera partekatu behar.

Merkatariek plataformara igotzea erabakitzen dituen produktu guztiak aukeratutako bi kategoria horietan egongo dira ikusgai eta, aldi berean, nahi adina azpikategoriatan.

Merkatari bakoitzak erabaki ahal izango du bere produktuak zer ordenatan agertzen diren bere gunean.

Gaur egun dauden kategoriak eta azpikategoriak II. eranskinean ikus daitezke.

Donostia Sustapenak kategoriak eta azpikategoriak aldatu eta zabaldu ahal izango ditu, beharren arabera.

Bilaketak

Bilaketak honako faktore hauen arabera egin ahal izango dira: saltokia, produktua, auzoa, geolokalizazioa, sustapena eta hitzen araberako berariazko bilatzaile baten bitartez.

Egindako bilaketetan, saltokiak eta produktuak ausazko hurrenkeran agertuko dira.

Erosketa-prozesua

Erosteko aukeratutako produktuak erosketa-saskian sartuko dira. Plataformak erosleari aukera ematen dio produktuak taldeka erosteko, baita produktu horiek saltoki desberdinetakoak badira ere.

Saltoki batek helbide bat baino gehiago badu eta dendan jasotzea aukeratzen bada, kokaleku guztien helbideak agertuko dira, eta erosleak aukeratuko du zein dendatara joango den eskaerajasotzera.

Zure saltokiko produkturen batekin egindako erosketa bakoitzeko, saltokiari jakinarazpen bat eta email bat iritsiko zaizkio prestatu behar duzun produktuari edo produktuei buruzko informazioarekin.

Salmentaren eta bidalketaren eremu geografikoa Espainiako penintsulako lurraldea izango da, Kanariar Uharteak, Balear Uharteak eta Ceuta eta Melilla Hiri Autonomoak izan ezik.

Entregatutako eskaera bakoitzarekin batera salmenta-tiketa aurkeztu behar da.

Ordainketaren kudeaketa

Harreman ekonomikoa zuzena izango da eroslearen eta saltzailearen artean, eta azken horri dagozkio sortzen diren kontabilitate-, zerga- edo bestelako betebeharrak.

Erosketen ordainketa ordainketa-pasabide baten bidez egingo da, eskaera plataforman bertan formalizatzen den unean.

Legeak finkatzen dituen itzulketa-epeak errespetatuz, inolako itzulketarik ez badago, Donostiako Sustapenak saltoki bakoitzari saldutako produktuei dagokien zenbatekoa ordainduko dio, ordainketak egiten diren egunetik 14 egun igaro ondoren, hilaren 10, 20 eta 30ean.

Saltokiak plataformaren beraren saltokiaren fitxan emandako konu-zenbakian sartuko da dirua.

Itzulketa politika

Erosleak 14 egun naturaleko epea izango du, eskaera jasotzen duenetik hasita, erositako produktua itzultzeko.

Kontsumitzaile eta erosleen arloan aplikatzekoa den legedian xedatutakoaren arabera, ez da atzera egiteko eskubidea aplikatuko honako kasu hauetan:

- Kontsumitzailearen eta eroslearen zehaztapenen arabera egindako ondasunen edo argi eta garbi pertsonalizatutako ondasunen horniduran.
- Azkar hondatu edo iraungi daitezkeen ondasunen horniduran.
- Osasuna edo higiena babesteko arrazoiengatik itzuli ezin diren eta entregatu ondoren zigilua kendu zaien ondasun zigilatuen horniduran.
- Entregatu ondoren, mota kontuan hartuta, beste ondasun batzuekin nahastu eta bereizi ezin diren ondasunen horniduran.
- Zigilatutako audio edo bideo grabazioen edo zigilatutako programa informatikoen horniduran, baldin eta kontsumitzaileak eta erosleak zigilua kendu badie entregaren ondoren.

Atzera egiteko eskubidea baliatzeak ez dio gasturik eragingo erosleari, ezta produktua itzultzeko kostuak ere, merkatariaik zuzenean hartuko baititu bere gain.

ITZULTZEKO PROZEDURA:

Erosleak itzulketa formularioa (atzera egiteko dokumentua) online betetzen duenean hasiko da itzulketa prozesua. Inprimakia Donostia Sustapenera bidali behar da, eta saltokira ere iritsiko dakopia bat.

Dendan jasotako erosketak itzultzea:

Dendan jasotako eskaerak dendan itzuli beharko dira.

Produktu horiek itzultzeko gehienez ere 5 egun balioduneko epea izango da, erosleak atzera egiteko erabakia jakinarazten duen egunetik zenbatzen hasita.

Merkatariaik ez du onartu behar atzera egiteko dokumentuarekin batera ez doan itzulketarik. Etxean

Entregatutako erosketak itzultzea:

Erosleak itzulketa nola egin aukeratu ahal izango du: bide beretik, hau da, entrega helbide berean jasota, edo dendan entregatuta.

Atzera egiteko dokumentuan, itzulketa mota (dendan edo etxean) eta itzulketa jasotzera joateko aukeratutako eguna eta ordu tartea zehaztu behar dira; merkatariaik egin beharko ditu produktua jasotzera egun eta ordutegi horretan joateko izapideak.

Itzulitako produktuak erosleak aukeratutako egunean eta ordu tartean jasotzeko kudeaketa lanak merkatariaik egin behar ditu.

Produktua itzuli ondoren, merkatariaik aztertu egingo du, eta erosleak eragindako akatsik ez badu, eremu pribatuan eskaeraren egoera aldatuko du; aldaketa egitean, Donostia Sustapenari automatikoki jakinarazten zaio itzulketa onartu dela eta erosleari ordaindutako zenbatekoa itzuliko zaio.

PRODUKTU AKASTUNAK:

Baldin eta (i) itzulitako produktuak EROSLEARI egotz dakiokkeen narriadura edo kalteren bat badu erosleak produktuaren izaera, ezaugarriak edo funtzionamendua ezartzeko beharrezkoa ez den manipulazio bat egitearen ondorioz; edo (ii) produktua ez bada osorik itzultzen, eroslearidagokio produktuaren balio murrizketa bere gain hartzea eta, kasuan kasu, ordaindutako zenbatekoa itzultzea ezinezkoa izatera irits liteke. Kasu horietan, egoera horren berri emango zaio erosleari posta elektronikoz, eta erosleak produktua jasotzeko edo bidaltzeko (dagozkion garraio kostuak ordainduta) prest utzi behar da, eroslearen aukeran, gehienez ere 15 egun naturaleko epean.

Nolanahi ere, merkataria ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain produktua zaindu edo gordetzeagatik, bere instalazioetan dagoen bitartean.

Produktu akastunen kasuan, produktua ez badator kontratuarekin bat edo tarak edo akatsak baditu, erosleak produktua konpontzeko edo ordezkatzeko eska dezake, bi aukeretako bat ala biak objektiboki ezinezkoak edo neurritz kanpokoak ez badira. Produktua konpontzea eta aldatzea doakoak izango dira eroslearentzat, bidalketa gastuak barne, eta, hala badagokio, eskulanarekin eta horretarako behar diren materialekin lotutako kostuak ere bai.

Produktuen bat ez badator kontratuarekin bat eta/edo tara edo akatsen bat baldin badu, erosleak lehenbailehen jakinarazi ahal izango du. Horretarako, plataformako erosketa baldintzak atalean – zehazki itzulketetan– eskuragarri dagoen atzera egiteko dokumentua bete beharko du eta bertan adierazi beharko du zein produktu itzuli nahi d(it)uen, baita konpondu edo aldatu nahi duen ere.

Jakinarazpen horri erantzuteko, mezu elektronikoz bat bidaliko zaio erosleari, gorabehera konpontzeko, eta produktua BALDINTZA OROKORRETAN ezarritako moduan itzul dezan eskatukozaio (IV. eranskina).

Merkataria itzulketa jaso ondoren, itzulitako produktua arretaz aztertuko da, eta erosleari posta elektronikoz jakinaraziko zaio, gehienez ere 10 egun balioduneko epean, hura konpondu edo aldatzea (eskatu denaren arabera) bidezkoa den ala ez. Bidezkoa bada, ahalik eta epe laburrenean egin beharko da.

Konponketa edo aldaketa egitea ezinezkoa bada, erosleak kontratua suntsiarazteko edo prezioa jaisteko eskubidea izango du, aukeran.

Kanpainaren xede diren produktuak: Ezaugarriak eta izakinak:

Jarraian zerrendatzen eta II. eranskinean zehazten diren produktuen kategoria/azpikategorietako bat merkaturatzen duten saltoki eta merkataritza establezimendu guztiek merkaturatu ahal izango dituzte beren produktuak.

Aurrekoa gorabehera, Donostiako Sustapena SAK berea du egoera zehatzak aztertzeke eta baloratzeko eskubidea, ondoren kopiatzen den zerrendan ez dauden ezaugarri espezifikoak edo produktuak dituzten establezimenduak sartzen diren ala ez zehazteko:

Kategoria: GABONETAKO AZOKA

Azpikategoria:

1. Elikadura
2. Artisautza
3. Eguberrietako oparietarako artikuluak

4. Eguberrietako apaingarriak
5. Moda

Eskaerak kudeatzeari buruzko baldintzak **DSS Market Plaza** plataforma digitalaren Oinarri Orokorretako 3. atalean (*Eskaeren kudeaketa*) deskribatzen diren berberak izango dira, **zeinak jarraian kopiaitzen baitira:**

Eskaerak kudeatzea:

Merkatari bakoitza arduratuko da eskaerak kudeatzeaz eta plataformaren barruan eskaintzen dituen produktuak entregatzeaz.

Zerbitzuak arina eta fidagarria izan beharko du, eta produktuak arretaz jaso eta entregatu beharko dira, kontsumitzailearengan konfiantza sortuz.

Erosketa saltokiaren establezimendu fisikoan entregatzen denean, eskaera jaso eta, gehienez ere, 3 egun balioduneko epean, entregatzeko prest egon beharko du. Erosleak 7 egun balioduneko epea izango du, gehienez, eskaera jasotzeko.

Erosketa bidalketa bidez entregatzen denean, eskaera jaso eta, gehienez ere, 8 egun balioduneko epean, erosketa entregatua egoteko moduan antolatu beharko du bidalketa merkatariak. Horretarako, bere baliabideak nahiz garraio zerbitzu batekin kontratatutakoak erabili ahal izango ditu.

Eskaerak prestatzeko epeak behin eta berriz atzeratzen badira hori justifikatzen duen kanpoko arrazoirik izan gabe, akordioa deuseztatu ahal izango da.

Denda bakoitza arduratuko da bidalketen kostuez.

2021ean zehar plataforma atxikiko duten dendek hobariak izango dituzte produktuak bidali eta jasotzeagatik.

Hobari horiek sustapen honetarako argitaratuko diren terminoen eta baldintzen arabera erabili ahal izango dira.

Denda bakoitzak produktua behar bezala bildu eta etiketatuko du, eta produktuaren egoera onaren erantzulea izango da. Dendarien erantzukizuna izango da salgaiak babestea banatzean haiek hondatzea saihesteko.

Dendaren erantzukizuna izango da produktu bakoitzaren egoera plataforman aldatzea, horri esker eskaera guztien egoeraren unean uneko benetako ikuspegia izatea ahalbidetuko baita, eta gako tresna izango baita ordainketak kudeatzeko eta, daudenean, itzulketak kudeatzeko ere.

Oso komenigarria da dendak, bere zerbitzu logistikoarekin edo kontratatu duenarekin kontaktuan, produktuaren bidalketaren informazioa edo tracking-a izatea.

Dendak plataforman adierazitako entrega datak zehaztuko du salmentak kobratzeko data eta bezeroak produktua itzuli ahal izateko izango duen epea”.

Sustapenak

A) EROSLEEI ZUZENDUTAKO SUSTAPENAK

DGA kanpainaren barruan salduko den produktu bakoitzak % 15eko beherapena izango du, gehienez ZAZPI EUROKOA (7€) kasu guztietan. % 15eko beherapen horren kostu osoa Donostia Sustapenak hartuko du bere gain, hau da, Donostia Sustapenak prezioaren % 100 ordainduko dio dendari, % 15eko beherapena aplikatu gabe. Sustapen hau eskusiboa izango da eta Kanpainan izena eman duten

pertsona erabiltzaileek egindako lehenengo 1.500 erosketei bakarrik aplikatuko zaie. Donostia Sustapenak eskubidea du beherapen horri onura aterako dieten erosketen kopurua areagotzeko.

Horrez gain, DGAREN kanpainan zehar DSS Market Plaza plataforma digitalean izena emango duten pertsona guztiek HOGEI EURORA (20€) ARTEKO deskontu bakarra izango dute HOGETA HAMAR EUROTIK (30€) GORAKO erosketetan.

B) DENDEI ZUZENDUTAKO SUSTAPENAK

Garraioaren kostu osoaz denda arduratu behar denez, Fomento de San Sebastián, S.A.-k Dendei hobariak emango dizkiete “DSS MARKET PLAZA PLATAFORMAN PARTE HARTUKO DUTEN MERKATARIEI BIDALKETA ETA ITZULKETA GASTUEKIN LAGUNTZEKO “DELIVERY BONUEN” OINARRI ARAUTZAILEA” dokumentuan bildutako laguntzei jarraiki, zeinak hurrengo helbidean aurki daitezkeen: <https://ayudas.fomentosansebastian.eus/es/servicios/asesoramiento-para-empresas/dss-market-plaza>

4.DSS MARKET PLAZA PLATAFORMAN GABONETAKO AZOKAREN KANPAINAN PARTE HARTZEKO ESKABIDEAK FORMALIZATZEA

A. Oinarri hauek argitaratzen diren egunean DSS Market Plaza plataforma digitalean alta emanda dauden eta plataforman ezarritako baldintza guztiak betetzen dituzten Donostiako establezimenduak eta saltokiak.

Donostiako Gabonetako Azokarako Kanpaina honetan parte hartu nahi duten DSS Market Plaza plataforma digitalean izena emanda duten establezimendu eta dendek saldu nahi dituzten produktuen erreferentziak bakarrik sartu beharko dituzte “GABONETAKO AZOKA” kategorian. Zentzu horretan, kategoria horretan sartzen den produkturen bat sartzen den unetik, Kanpaina horretan parte hartzea berariaz onartzen dutela ulertuko da eta, ondorioz, oinarri hauek onartzen direla ere.

B. Oinarri hauek argitaratzen diren egunean DSS Market Plaza plataforma digitalean alta emanda ez dauden establezimenduak eta saltokiak.

DSS Market Plaza plataforma digitalean izena emanda ez dauden establezimenduak eta saltokiek, Donostiako Gabonetako Azokaren Kanpaina honetan parte hartu nahi badute (nola pertsona fisikoek

hala pertsona juridikoe), ondoren deskribatzen den dokumentazioa eta informazioa osatu eta aurkeztu beharko dituzte, 2021eko abenduaren 3a baino lehen.

Dokumentazioa edo eskaera telematikoki aurkeztu ahal izango da Donostia Sustapenaren webgunean (<https://ayudas.fomentosansebastian.eus/eu/zerbitzuak/enpresentzako-aholkularitza/dss-market-plaza-eu>) bertan jasotako eskakizunei jarraikiz, edo aurrez aurre, Donostia Sustapenaren bulegoetara joz (Erregina Erregeordearen kalea 8, Victoria Eugenia antzokia, 20003, Donostia [Gipuzkoa]), astelehenetik ostegunera, 9:00etatik 18:00etara bitartean. Ostiraletan eta jaiegun bezperetan, berriz, 9:00etatik 14:00etara.

Pertsona fisiko edo juridiko bakoitzak eskabide bakarra aurkeztu beharko du. Izen komertzial bat baino gehiagorekin parte hartu nahi duten enpresek izen komertzialak adina sarbide izan ditzakete, baina eskabide bakarra aurkeztu beharko dute.

Edozein informazio, kontsulta edo gorabehera argitzeko, jarri harremanetan Donostia Sustapenarekin: 943 482 800 telefono zenbakira deituta, edo fomentoss@donostia.eus helbidera mezu bat idatzita, eta erreferentzia hau adierazita: DSS Market Plaza plataforma.

Plataforman izena emateko eskaerarekin batera, honako dokumentu hauek aurkeztu behar dira:

- Formalizazio - akordioa
- I. eranskina: eskaera
- Pertsona fisikoa bada, eskatzailearen NANA.
- Pertsona juridikoa bada, IFKren kopia eta, hala badagokio, sinatzailearen NANA.
- Indarrean dagoen erantzukizun zibileko aseguru polizaren kopia eta ordainketaren ziurtagiria

Donostia Sustapenak zuzenean eskuratuko du Gipuzkoako Foru Ogasunak emaniko ekonomia jardueren gaineko zergako historikoaren egiaztapena, ziurtagiri telematikoen bidez (altak, bajak, aldaketak, jarduera epigrafeak).

Eskatzaileak berriaz egin ahal izango du Donostiako Sustapenak datu horiek kontsultatzearen aurka, eta justifikatu egin beharko ditu horretarako arrazoiak, Datuak Babesteko 2016/679 (EB) Erregelamenduaren 21. artikulua dionari jarraikiz; hala eginez gero, dagozkion ziurtagiriak aurkeztu beharko ditu.

- Gipuzkoako Foru Aldundiak laguntza eskatu duen enpresari buruz egindako jarduera ekonomikoen dokumentu eguneratua eta historikoa.

5.ESKAERETAKO HUTSAK ZUZENTZEA

Dokumentazio guztia aztertu ostean, eskaera osorik bete gabe dagoela egiaztatzen bada, edo eskaerarekin batera ez dela dagokion dokumentazioa aurkeztu, pertsona edo erakunde eskatzaileari hiru egun balioduneko epea emango zaio, zuzenketa jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, akatsa zuzentzeko edo nahitaezko dokumentuak aurkezteko; halaber, hala egiten ez badu, jakinaraziko zaio eskaera baztertu egingo dela bestelako izapiderik gabe, eta horri dagokion ebazpena emango da.

6. ESKABIDEAK BALIOESTEA ETA FORMALIZATZEA

Donostiako Sustapenak, lehenik eta behin, egiaztatuko du eskatzaileak betetzen dituela DSS Market Plaza plataforman Donostiako Gabonetako Azokaren kanpainan parte hartzeko baldintzak, zeinak oinarri hauetako bigarren atalean baitaude jasota.

Ondoren, gehienez ere 2 egun balioduneko epean, eskatzaile bakoitzari DSS Market Plaza plataforman Donostiako Gabonetako Azokaren kanpainaren parte hartzaile gisa egindako balioespenaren emaitza jakinaraziko dio, horretarako berariazko ebazpen baten bidez. Ebazpen hori posta elektronikoz bidaliko da, edo kanpainari atxikitzeko agirietan ezarritako edozein komunikabide edo komunikabideren bidez.

Donostiako Gabonetako Azokarako kanpainan DSS Market Plaza plataforman parte hartzeko alde aurreko baldintza gisa, Donostia Sustapenaren eta parte hartzen duen enpresa/komertzioaren arteko akordioa formalizatuko da, 5. eranskinean jasotako eredu sinatuz (informazio ondorioetarako soilik).

Halaber, eskatzaile guztiek konpromisoa hartzen dute 2021eko azaroaren 30a baino lehen informazio guztia kargatzeko eta produktuei, argazkiei eta abarri buruzko informazio guztia iraultzeko. Aldez aurretik, Donostia Sustapenak alta emango dio plataforman saltoki parte hartzaileari, eta dagozkion gakoak emango zaizkio, izapidea bete ahal izateko.

Aurrekoa gorabehera, Donostia Sustapenak berea du eskatzaileari beharrezkotzat jotzen duen beste edozein informazio edo dokumentazio eskatzeko eskubidea, aurkeztutako datuak egiazkoak edo zehatzak direla egiaztatzeko.

Dokumentazioa aurkezteko epeak betetzen ez badira, ulertuko da bertan behera geratu dela eskabidea, salbu eta Donostia Sustapenak berariaz baimentzen badu ezohiko epe hori luzatzea, behar bezala justifikatutako arrazoiengatik, eta interesdunak hala eskatzen badu.

7. PARTE HARTZEN DUTEN SALTOKIEN BETEBEHAR OROKORRAK

DSS Market plaza plataforman saltoki gisa parte hartzen duten pertsonak beren gain hartuko dituzte oinarri hauetan jasotako betebeharrak eta, ondorio horietarako, berariaz aplikagarritzat jotzen dira honako betebehar hauek (zerrenda adierazgarria baino ez da, eta ez da mugatzailea):

- a) Oinarri hauetako bigarren artikuluan adierazitako baldintza guzti-guztiak betetzea.
- b) "Saltzeko baldintza orokorrak" eta "Plataforma erabiltzeko baldintzak" dokumentuetan ezarritako gainerako baldintzak irakurtzea eta onartzea.
- c) Informazioa etengabe eguneratuta edukitzea, erabiltzaile esperientzia egokia izateko.
- d) Eskakerak, bidalketak eta itzulketak arin eta modu fidagarrian kudeatzea, eta produktuak arretaz jasotzea eta entregatzea, kontsumitzailearengan konfiantza sortuz.
- e) Eskariei garaiz eta behar bezala erantzuteko adina izakin izatea, oinarri hauetan adostutakoaren arabera.
- f) Erantzukizun zibileko aseguru poliza bat indarrean edukitzea, garatutako jardueraren ondoriozko balizko erreklamazioak estaltzen dituen, baita produktuetatik eratorritako erantzukizuna ere.
- g) Kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta dagoenean.
- h) Donostia Sustapenari jakinaraztea DSS Market Plaza plataforman Tokiko Produktuaren Egunaren kanpainan parte hartzea baloratzeko kontuan hartu den edozein inguruabar subjektibo zein objektiboren aldaketa.
- i) Donostia Sustapenak bere eginkizunak betetzeko eskatzen dion informazio guztia ematea.

- j) Donostia Sustapenak antola ditzakeen ekitaldi eta jardunaldietan parte hartzea, tokiko produktuaren kontsumoa eta merkaturatzea bultzatzeari eta sustatzeari dagokionez. Nolanahi ere, Donostia Sustapenak parte hartzaileei jakinaraziko die haien laguntza izan behar dutela ekitaldia edo jardunaldia egin baino 15 lanegun lehenago gutxienez.
- k) Donostia Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta haren esku ipintzea eskatzen zaion informazio eta dokumentazio guztia.
- l) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- m) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanaz) plataformaren edukian, komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia, eta abar), sustapen eta hedapen materialen edizioan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan, eta abarretan.

8. PARTE HARTZEKO AKORDIOA DEUSEZTATZEA

Besteak beste, akordioa deuseztatzeko arrazoi izango dira:

- Saltokiak/ekoizleak uko egitea.
- Saltokiaren titularra edo ekoizlea hiltzea.
- Baimena lortzeko eta mantentzeko eskatzen diren baldintza guztiak edo batzuk galtzea.
- Oinarri hauetan eta akordioan bertan ezarritako baldintzak ez betetzea: informazioa ez eguneratzea, mantentze lanik ez egitea, erosleek produktuen kalitate eskasagatik erreklamazioak egitea, eta abar.

Kasu horietan, Donostia Sustapenak akordioa deuseztatu ahal izango du, eta ekoizlea eta/edo saltokia kanpainatik kanpo geratuko dira, baina gertakari horrek ez du sortuko kalte ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko eskubiderik aurreko egoeraren batean dagoen alderdiarentzat.

9. BORONDATEZKO BAJA HARTZEA PLATAFORMAN

Saltoki/establezimenduek noiznahi eskatu ahal izango dute baja, beren eremu pribatutik. Horrekin, ezabatu egingo da fitxa saltokitik.

Hala ere, Donostia Sustapenak gorde egingo ditu saltoki parte hartzaile horrek egindako salmenten datu historikoak.

Plataformatik behin betiko baja formalizatzeko, saltokiak/establezimenduak bere eremu pribatuan baja emateko atalean aurki dezakeen inprimakia bete beharko du. Bete ondoren, PDF formatuan deskargatu eta sinatu ahal izango du, Donostia Sustapenari borondatezko baja eskatzeko.

10. DATUEN BABESA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten dizugu DONOSTIAKO UDALAK tratatuko dituela erregistro honen bitartez emandako datuak, eta Udala dela tratamenduaren erantzule. Datuak DONOSTIA SUSTAPENAK kudeatzen ditu, hura baita tratamenduaren arduraduna.

Tratamenduaren helburua izango da salerosketa plataforman MERKATARI gisa duen alta eta partaidetza izapidetu eta kudeatu ahal izatea.

Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.b) artikulua da datu pertsonalen tratamendurako legezkotasun oinarria, plataformaren bitartez saldu ahal izateko termino eta baldintzak onartzen dituen heinean, baita Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorraren 6.1.e) artikulua ere.

Tratamendua beharrezkoa da, interes publikoaren aldeko eginkizunen bat betetzeko edo tratamenduaren arduradunari emandako botere publikoak betetzeko jardunean, tokiko merkataritzaren sustapenarekin lotuta.

Datu pertsonalak plataforman argitaratu ahal izango dira, erosleak erosketa formalizatu ahal izan dezan. Ez dago aurreikusita datu pertsonalen bestelako jakinarazpenik, ezta nazioarteko transferentziarik ere hirugarren herrialdeetara edo nazioarteko erakundeetara, nola eta ez den sortzen legezko betebeharririk horretarako.

Datuak biltzeko baliatutako helburua betetzeko eta datu pertsonalen tratamendutik erator daitezkeen erantzukizunak zehazteko beharrezkoa den denbora guztiak gordeko dira bildutako datuok.

Zure datuak eskuratzeko, zuzentzeko, ezabatzeko eta eramateko eskubideak baliatu ahal izango dituzu, bai eta datuok tratatzeko mugak ezartzeko edo datuen aurka egiteko eskubidea ere hala dagokionean. Horretarako, DONOSTIAKO UDALERA jo beharko duzu: Ijentea 1, 20003, Donostia (Gipuzkoa).

Eskubideak baliatzeko garaian ez badizute behar bezala erantzun, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango duzu Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, aldeztu aurretik eta aukeran, datuak babesteko ordezkarirengana jo ahal izango duzu, helbide elektronikoko honen bidez: dpd@donostia.eus.

11. LEGERIA APLIKAGARRIA, BALIOZKOTASUNA ETA OINARRIAK APLIKATZEA

Onlineko dendan bidez egiten den jarduerak nahitaez bete beharko du merkataritza elektronikoen, kontsumitzaileen eta eroslearen babesaren eta datu pertsonalen babesaren arloan aplikatzea den Europako eta Espainiako legedia.

Oinarri hauek berriaz aplikatuko dira Donostiako Gabonetako Azokaren Kanpainan, DSS Market Plaza plataforma digitalean, zeina **2021eko abenduaren 3tik 2022ko urtarrilaren 6ra egingo baita**. Egun horiek igaro ondoren, oinarri hauek ondoriorik gabe geratuko dira, salbu eta sustapenari, ordaintetari, produktuen itzulketari edo Donostiako Gabonetako Azokaren Kanpaina harago luza daitezkeen beste edozein zirkunstantziari dagozkion gaitan.

Ildo horretan, Donostiako Gabonetako Azokaren kanpaina amaitu ondoren, kanpaina egin aurretik plataformari atxikita ez dauden eta **DSS Market Plaza** plataforma digitalean izena eman duten merkataritza establezimenduek eta komertzioek, zehazki bertan parte hartzeko, DSS Market Plazaren plataformako kide izateari utziko diote. Esperientzia asegarria izan dutenek eta plataforman erregulartasunez parte hartu nahi dutenek **DSS Market Plaza** plataforma digitalaren Oinarri Orokorretan ezarritako prozesuaren bidez osatu beharko dute izena emateko prozesu orokorra.

Halaber, oinarri hauetan arautzen ez diren gaitan edo DSS Market Plaza plataforma digitalari atxikitzeko oinarri orokorretan ezarritakoarekin bat ez datozenetan, azken horietan ezarritako arauak eta baldintzak aplikatuko dira.

12. FORUA ETA AUZIAK EBAZTEA

Erosleen eta EKOIZLEEN artean sortzen den edozein eztabaida edo gatazka epaitegi eta auzitegi eskudunen aurrean bideratuko da, Espainiako prozesu araudiak ezarritakoaren arabera.

Halaber, jakinarazten dizugu Zuzenbidean aukera duzula Europar Batasuneko auziak ebazteko onlineko plataformara jotzeko, esteka honen bidez: <http://ec.europa.eu/consumers/odr/>.

Donostian, 2021eko azaroaren 4an.

Euken Sesé

Donostia Sustapena SAREN gerentea.

ERANSKINAK

1. ERANSKINA: ESKAERA
2. ERANSKINA: KATEGORIAK ETA AZPIKATEGORIAK
3. ERANSKINA: IRUDIETARAKO ESKAKIZUNAK
4. ERANSKINA: SALTZEKO BALDINTZA OROKORRAK
5. ERANSKINA: DONOSTIA SUSTAPENAREN ETA ESTABLEZIMENDU/SALTOKIAREN ARTEKO FORMALIZAZIO AKORDIOA

1. ERANSKINA: ESKAERA

DONOSTIAKO GABONETAKO AZOKAREN EGUNEKO KANPAINA DSS MARKET PLAZA PLATAFORMAN

Izen-abizenak / Nombre-Apellidos:	NAN / DNI:	Kargua / Cargo en la empresa
Ordezkatzen duen enpresa / En representación de:		
Enpresaren/ekoizlearen izena / Razón social de la empresa/productor:		IFZ/IFK -
NIF/CIF:		
Kalea eta zenbakia / Calle y nº:		
Udalerría / Municipio:	PK / CP:	Telefonoa / Teléfono:
E-posta (nahitaezko datua) / E-mail: (dato obligatorio)		
Jakinarazpen helbide elektronikoa / Dirección electrónica de Notificación:		
(goian jarritako enpresarena ez den kasuetan bakarrik /solo si es diferente al de la empresa)		
E-posta / E-mail:		
Kontaktu-pertsona / Persona de contacto:		
Izen-abizenak / Nombre-Apellidos:		Telefonoa / Teléfono:
Izen Komertziala / Nombre comercial:		
1.-		
2.-		
3.-		

ADIERAZTEN DU:

- xxxxx saltokian parte-hartzea arautzeko oinarretan ezarritako baldintzak eta beharrak ezagutzen eta onartzen dituela.
- Erakundeak bere eskaera orrietan eta erantzukizunpeko adierazpenetan jasotako datuak egiazkoak direla.
- Aurkeztutako dokumentazio guztia benetako dela.
- Oinarrietan ezarritakoaren aurreiritzirik gabe, eskaeraren amaieran transkribatzen den pribatutasun politika irakurri duela eta onartzen duela eta laguntza-espedita honen inguruko dokumentazio guztira zabaltzen duela.

ESKATZEN DU:

Eskaera onartzea eta xxx saltokian parte hartzea onartzea.

xxxxx SALGUNEAN PARTE HARTZEA ARAUTZEKO OINARRIEN arabera, eskaera hau sinatzean

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPEN HAU EGITEN DU:

- Produktuak Internet bidez saltzeko interesa duen merkatari/ekoizle bat dela.

MANIFIESTA:

- Que conoce y acepta las condiciones y obligaciones establecidas en las bases PARA REGULAR LA PARTICIPACIÓN EN EL ESPACIO DE VENTA LA CAMPAÑA DEL MERCADO DE NAVIDAD DE SAN SEBASTIÁN EN LA PLATAFORMA DSS MARKET PLAZA.
- Que los datos consignados por la entidad en sus formularios de solicitud y declaraciones responsables son ciertos.
- Que toda la documentación presentada es real.
- Que ha leído y acepta sin reservas la Política de Privacidad que se transcribe al final de la solicitud.

SOLICITA:

Sea aceptada su solicitud y se le conceda la participación en el espacio de venta la campaña del Día del Mercado de Navidad de San Sebastián en la plataforma DSS Market Plaza.

Conforme a las bases para BASES PARA REGULAR LA PARTICIPACIÓN EN EL ESPACIO DE VENTA LA CAMPAÑA DEL MERCADO DE NAVIDAD DE SAN SEBASTIAN EN LA

2. Pertsona juridikoak jarraian zerrendatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela:

- a. Haren aktiboa ez dela 10 milioi eurotik gorakoa edo haren eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Itun Ekonomikoan zehazten den moduan, ez dela 10 milioi eurotik gorakoa.
- b. Haren plantillan batez beste dauden langileen kopurua ez dela iristen 50era.
- c. Ez duela 1. eta 2. puntuan aurreikusitako baldintzaren bat betetzen ez duten beste enpresa batzuen % 25-100 arteko partaidetzarik, zuzenean edo zeharka.

4. Pertsona juridikoak jarraian zerrendatzen diren baldintza guztiak betetzen dituela:

- a. Haren plantillan batez beste dauden langileen kopurua ez dela iristen 50era.
- b. Haren aktiboa edo eragiketen bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Itun Ekonomikoan zehazten den moduan, ez dela 10 milioi eurotik gorakoa.

5. Gizarte erantzukizuneko aseguru poliza bat kontratatua eta indarrean duela edo halako bat kontratatzeko konpromisoa hartzen duela, garatutako jardueratik eratorritako balizko erreklamazioak estaltzeko, produktuei lotutako erantzukizuna barne hartuta.

PLATAFORMA DSS MARKET PLAZA, al firmar la presente solicitud

REALIZA LA SIGUIENTE DECLARACION RESPONSABLE:

1. Que es un comercio/establecimiento con interés de vender productos a través de internet.

2. Que la persona jurídica cumple todos los requisitos que se enumeran a continuación:

- a. Que su activo no supera los 10 millones de euros o que su volumen de operaciones, tal y como se define en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, no supera los 10 millones de euros.
- b. Que el promedio de su plantilla no alcanza las 50 personas empleadas.
- c. Que no se halla participadas directa o indirectamente en un 25 por 100 o más por empresas que no reúnan alguno de los requisitos previstos en los números 1 y 2 anteriores.

4. Que la persona física cumple todos los requisitos que se enumeran a continuación:

- a. que el promedio de su plantilla no alcanza las 50 personas empleadas
- b. que su activo o su volumen de operaciones, tal y como se define en el Concierto Económico con la Comunidad Autónoma del País Vasco, no supera los 10 millones de euros.

5. Que tiene contratada y en vigor o se compromete a contratar una póliza de seguro de responsabilidad civil, que cubra las posibles reclamaciones derivadas de la actividad desarrollada, incluyendo la responsabilidad derivada de productos.

Legezko ordezkariaren sinadura eta enpresaren/ekoizlearen zigilua

Firma del representante legal y sello de la empresa/comercio

Donostia / San Sebastian, (data/fecha).....

2. ERANSKINA: AZPIKATEGORIAK

Eskatzaileak azpikategoria hauen artean aukeratu beharko du:

- Elikadura
- Artisautza
- Eguberrietako oparietarako artikulak
- Eguberrietako apaingarriak
- Moda

3. ERANSKINA: IRUDIEN ZAKO BETEKIZUNAK

	SALTOKIAREN LOGOTIPOA	SALTOKIAREN ARGAZKIA	PRODUKTUAREN ARGAZKIA
Argazki-kopuru maximoa	1	1	1
Orientazio karratua	150 x 150px	1100 x 1100px	500 x 500px
Gomendatutako gehieneko pisua	30 Kb	200 Kb	100 Kb
Baimendutako fitxategien formatua	jpeg	jpeg	jpeg

4. ERANSKINA: SALMENTA BALDINTZA OROKORRAK

SALMENTA BALDINTZA OROKORRAK

(Bertsioa indarrean hasi zen eguna: 2021/04/24)

1. OROKORRA

Salmenta Baldintza Orokor hauetan (hemendik aurrera, "**BALDINTZA OROKORRAK**") xedatzen dira tokiko merkataria independenteek (hemendik aurrera, "**SALTZAILEA/K**") bezeroekin (hemendik aurrera, "**ERABILTZAILEA/K**") online erosketak egiteko "*DSS Market Plaza*" web plataformaren bitartez egiten duten produktuen salmenta, oro har, arautzen duten termino eta baldintzak; plataformaren domeinuaren izena www.dssmarketplaza.eus da (hemendik aurrera, "**PLATAFORMA**").

PLATAFORMAREN titularra **DONOSTIA SUSTAPENA SA** da (hemendik aurrera, "**SUSTAPENA**"), eta salmentak online egiteko tresna teknologiko bat eskaintzen du. Tresna horretan, "*Marketplace*" gisa, SUSTAPENAK SALTZAILEEN eskura jartzen du eta aukera ematen die PLATAFORMAN estatututako banakako gune bat edo online denda bat izateko (hemendik aurrera, "**ONLINE DENDA/K**"), haien produktuak eskaintzeko eta saltzeko.

Horren ondorioz, PLATAFORMARA sartzean eta ONLINE DENDA batean erosketak egitean, ERABILTZAILEA ez da zuzenean SUSTAPENAREKIN kontratatzen ari, ONLINE DENDAREN titular den SALTZAILEAREKIN baizik. SUSTAPENAREN jarduera, nolahi ere, SALTZAILEAREN eta ERABILTZAILEAREN arteko bitartekaritza lanak egitea baino ez da, PLATAFORMA bidezko transakzioak ahalbidetuz.

Testuinguru horretan, BALDINTZA OROKORRAK ERABILTZAILEEI informazio argia, ulergarria, zalantzarik gabea eta egiazkoa emateko idatzi dira, modu iraunkorrean, errazean eta doan, dagokion SALTZAILEAK produktuak ONLINE DENDA bakoitzaren bitartez saltzea arautzen duten baldintzei buruz.

BALDINTZA OROKORRAK ERABILTZAILEEN eskura egongo dira, eta nahi dutenean kontsultatu eta inprimatu ahal izango dituzte PLATAFORMAN bertan.

ONLINE DENDA bakoitzean erosketak egiteko, ERABILTZAILEAK BALDINTZA OROKORRAK berariaz irakurri eta onartu behar ditu, horretarako prestatutako sistemaren bitartez; beraz, ezin izango da erosketak prozesua burutu, ezta eskaerarik egin ere, baldintza horiek alde aurretik onartzen ez badira.

Aurrez esandakoa alde batera utzi gabe, SALTZAILEEK ONLINE DENDEN bitartez ERABILTZAILEEN eskura jarritako produktu jakin batzuk baldintza berezi jakin batzuen (hemendik aurrera, "**BALDINTZA BEREZIAK**") mende egon daitezke; hala badagokio, BALDINTZA OROKORRAK osatu edo aldatuko dituzte. ONLINE DENDETAN erosketak burutu baino lehen, ERABILTZAILEAK arretaz irakurri eta, hala badagokio, onartu egin beharko ditu dagokion ONLINE DENDAN eskuragarri dauden BALDINTZA BEREZIAK. Nolanahi ere, SUSTAPENAK ez du inolako erantzukizunik hartuko bere gain SALTZAILE bakoitzak zehaztu ditzakeen BALDINTZA BEREZIEI dagokienez, ezta BALDINTZA OROKORREI dagokienez ere.

Era berean, BALDINTZA OROKORREN aplikazio eremutik kanpo geratzen dira erabiltzaileek SALTZAILEEN PLATAFORMATIK kanpoko webguneetan edo sistemetan egiten dituzten erosketak, nahiz eta kanpoko webgune edo sistema horietara ONLINE DENDETATIK birbideratuta iritsi. Erosketa horiek kasuan kasuko SALTZAILEAK ezarritako baldintzen arabera arautuko dira.

2. SALTZAILEA IDENTIFIKATZEA

ERABILTZAILEEI jakinarazten zaie ONLINE DENDA bakoitzean egindako salmenta eskaintzen arduraduna denda horretan behar bezala identifikatuta agertzen den SALTZAILEA dela.

3. NOLA EROSI?

ONLINE DENDETAN erosketa bat egiteko bi modu daude: bata ERABILTZAILEREGISTRATU gisa eta bestea gonbidatu gisa.

Lehenengo kasuan, dagokion formularioa bete behar da ERABILTZAILEREGISTRATUEN datu pertsonalekin. Erregistro horrek honako aukera hauek emango dio ERABILTZAILEREGISTRATUARI: (i) eremu pribatura sartzea, "*Erabiltzaile eremua*" atalaren bitartez; (ii) datuak geroago aldatzea, eguneratuta izateko; (iii) erosketak kudeatzea; eta (iv) sustapen eta eskaintza berezietan baliatzea, halakorik dagoenean.

Erregistroa amaitu aurretik, ERABILTZAILEREGISTRATUAK BALDINTZA OROKORRAK onartu beharko ditu nahitaez; hala egin ezean, prozesua ez da burutuko eta, beraz, ezin izango da ERABILTZAILEREGISTRATU izan. Erregistroa burututakoan, nahi beste aldiz sartu ahal izango da eremu pribatura ("*Erabiltzaile eremua*" atalean dago), ERABILTZAILEREGISTRATU izena eta pasahitz pertsonalak idatzita.

Erregistroa nahi ez duten ERABILTZAILEREGISTRATUAK, gonbidatu gisa erosteko aukera dago, ONLINE DENDETAN nabigatu eta erregistroa gabe "*erosketa orga*" betetzeko. Erosketa burutzean baino ez dira datuak eman behar, eta datu horiek ez dira gordeko hurrengo erosketetarako. Kasu horretan ere, nahitaezkoa izango da erosketa egiteko unean BALDINTZA OROKORRAK onartzea.

Nolanahi ere, erosketa prozesua oso erraza da; izan ere, ERABILTZAILEREGISTRATUAK ONLINE DENDA bakoitzean erosi nahi dituen produktuak aukeratu, produktu kopurua zehaztu eta erosketa organ gehitu besterik ez du egin behar. Produktu bakoitza hautatzean, horri buruzko informazio zehatza bistaratu da:

- Produktuaren izena;
- SALTZAILEEREGISTRATUEN nortasuna;
- Produktuaren ezaugarriak;
- Eskuragarri dauden koloreak/modeloak (dagokionean);
- Prestazio teknikoak, halakorik izanez gero;
- Neurriak/tamainak, hala badagokio;
- Prezioa, BEZa sartuta baina bidalketa gasturik gabe, eskaintzan gastu horiek sartzen direla adierazi ezean.

ERABILTZAILEREGISTRATUAK sustapen kode bat edo online kupoi bat baldin badu, une honetan sartu beharko du, bertan adierazitako eta aplikatzekoak diren baldintza eta deskontuek baliatzeko.

Erosketa amaitzeko, ERABILTZAILEREGISTRATUAK erosketa orgara joan beharko du. Bertan, hautatutako produktuak eta, hala badagokio, aplikatzekoak diren bidalketa gastuak zehaztuko dira, berrikus ditzan,

eta bere erabiltzailearen identifikatzailea (helbide elektronikoa) eta pasahitza idatzita identifikatu eta autentifikatu egin beharko du, baita BALDINTZA OROKORRAK berriro onartu ere.

Eskaera berrikusi eta ERABILTZAILA identifikatu ondoren, erosketak ordaindu egin behar da, hurrengo **¡Error! No se encuentra el origen de la referencia..** atalean ezarritako moduan.

Ordainketa baliozkotu ondoren, salerosketa kontratu bat ezartzen da ERABILTZAILAAREN eta SALTZAILAAREN artean, BALDINTZA OROKORREI eta, hala badagokio, BALDINTZA BEREZIEI atxikita. Erosketak gaztelaniaz eta euskaraz soilik egin ahal izango dira, baina, hizkuntza edozein dela ere, BALDINTZA OROKORREN 5. atalean deskribatzen den eremu geografikoan baino ezin izango dituzte eskaini produktuak SALTZAILAEEK. Erosketa prozesua amaitu ostean, erosketa berretsi egingo da ERABILTZAILARI bidalitako "Eskaera berrestea" mezu elektronikoa baten bitartez. Mezu horretan, gutxienez, honako datu hauek jasoko dira: eskaera zenbakia, produktu kopurua, horietako bakoitzaren deskribapena (hau da, ezaugarriak, prezioa, zergak eta bidalketa gastuak), eta entregatzeko epea, BALDINTZA OROKORREN 7. atalean deskribatutako baldintzetan.

